

# B

BARREN

TOKIKOM

# Zuhaitza ala animalia?



# ARAMBURU BITXIDENDA

## ARANBURU BITXIDENDAKO GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA  
500 €-ko  
balea bitxi dendan  
gastatzeko

Zbkia.: 859

Ordezko zbkia.: 430



2. SARIA  
500 €-ko  
balea bitxi dendan  
gastatzeko

Zbkia.: 138

Ordezko zbkia.: 1.094

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535



### LANGILE ETA LANGABETUENTZAT %100 DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

IKASTAROKA	ORDURAK	HASIERA	AMAIERA	ORDUTEGIA
<b>PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK</b>				
INTERPRETACION DE PLANOS (UF0453 )	40	2012/01/23	2012/02/16	18:30-21:00
CAD/CAM UNIGRAPHICS (UF0454 )	90	2012/01/23	2012/03/13	18:00-21:00
PROGRAMACION TORNO FAGOR (UF0879 )	80	2012/01/23	2012/03/16	18:00-21:00
PROGRAMACION FRESADORA HEIDENHAIN (UF0879 )	80	2012/01/23	2012/03/16	16:00-18:30
TORNO CONVENCIONAL (UF 0881 )	80	2012/01/23	2012/02/23	17:00-21:00
PROGRAMACION FRESADORA FANUC (UF 0879 )	80	2012/01/30	2012/03/22	16:00-18:30
PROGRAMACION TORNO FANUC (UF 0879)	80	2012/01/30	2012/03/22	18:30-21:00
PROGRAMACION FRESADORA SIEMENS (UF 0879 )	80	2012/01/30	2012/03/22	18:30-21:00
PROGRAMACION TORNO SIEMENS (UF 0879)	80	2012/01/30	2012/03/22	16:00-18:30
AUTOMATISMOS PROGRAMABLES OMRON (UF 0450 )	50	2012/01/23	2012/02/23	18:30-21:00
OPERACIONES DE MECANIZADO MANUAL (UF 0462 )	40	2012/02/06	2012/03/01	18:30-21:00
OPERACIONES DE MECANIZADO PARA TECNICOS DE MANT. Y MONTAJE (UF 0462)	70	2012/02/13	2012/03/29	16:00-18:30
AUTOMATISMOS PROGRAMABLES SIEMENS (UF 0450 )	50	2012/02/20	2012/03/22	18:30-21:00
NEUMATICA E HIDRAULICA (UF 0459 )	90	2012/02/27	2012/04/25	18:00-21:00
ELECTRICIDAD, AVERIAS ELECTRICAS ,MOTORES (UF 0458 )	90	2012/02/27	2012/04/25	18:00-21:00
CONTROL Y SUPERVISION EN LOS PROCESOS DE PRODUCCION (UF 0179 )	60	2012/02/06	2012/03/16	18:00-20:30
COMO SACAR EL MAXIMO RENDIMIENTO A LOS EQUIPOS DE PRODUCCION (UF0179)	30	2012/02/06	2012/03/26	16:00-19:00
PRL Y MEDIOAMBIENTALES EN EL MECANIZADO (UF 877 )	30	2012/02/27	2012/03/15	17:00-19:30
<b>ESKAITZA IREKIA</b>				
SOLID EDGE I. MODELADO Y PLANOS	30	2012/01/23	2012/02/16	16:00-18:00
SOLIDWORKS I. MODELADO Y PLANOS	30	2012/01/30	2012/02/16	18:30-21:00
MMC NIVEL1: PROGRAMACION GEOMETRICA PCDmis	20	2012/02/13	2012/02/22	17:00-20:00
PROGRAMACION DE ROBOTS ABB NIVEL I	20	2012/01/23	2012/02/02	16:00-18:30
WINCCFLEXIBLE	18	2012/02/06	2012/02/16	18:45-21:00
INSTALACION Y MANTENIMIENTO DE CNC FANUC	20	2012/02/06	2012/02/16	16:00-18:30
LA INTELIGENCIA EMOCIONAL NIVEL 1. SENSIBILIZACION	16	2012/02/07	2012/02/16	15:00-19:00


Subertzioa eskatuko zake:

IKASTAROEN PROGRAMAZIO GUZTIA [www.imh.es](http://www.imh.es) WEB ORRIAN AURKITUKO DUZUE

Informazioa: Eider edo Ane - IMH (Azkuze Auzoa, 1- 20870 Elgoibar GIPUZKOA)

Tlfnoa: 943748266 / 943744132 - Faxa: 943744153 - [imhformazioa@imh.es](mailto:imhformazioa@imh.es) - [www.imh.es](http://www.imh.es)





Noemi  
Otegi

Badago soziolo-  
gian paradigma bat zei-  
nak dioen zerbait egiazkoa  
dela uste baduzu, ondorioetan  
erreala izango dela. Honek zera esan  
nahi du: gaixo zaudela pentsatzen baduzu, az-

kenean gaixotu egingo zarela, edo norbaitek zurekin egon nahi ez duela pentsatzen baduzu, berarekin duzun tratuan nabarituko dela, eta berak egiten duen edozein keinuk, benetan gorroto zaituela baieztatzen lagunduko dizula, eta berdin du benetan pertsona horrek sentitzen duena. Horrela nahasten dugu geure bizitza askotan, benetan existitzen ez diren gauzetan sinisten dugulako edo sinistu nahi dugulako. Horiei gaizki-ulertuak deritzaie, baina atzetik borondate kontu bat dagoela uste dut. Hori bai, Ainara, beti, modu ezkor batean erabiltzen dugu paradigma hau. Sinetsiko bagenu guztion bizitza hobetzeko gaitasuna daukagula, benetan gauzak errazagoak izango lirateke, baina ez, neska!

**“Sinetsiko bagenu bizitza hobetzeko gaitasuna daukagula, gauzak errazagoak izango lirateke ”**

Ahal den neurrian gauzak okertu ditzakegula sinisten omen dugu, eta ondorioz geure egunak ilunagoak bihurtzeko gaitasuna indartzen dugulakoan nago. Urte berri honetarako niretzat eta zuretzat desio bat daukat, maitte: paradigma hau positiboki erabiltzea, hain zuzen ere! Esnatzen garen guztietan, ondokoari irribarre bat ateratzeko gai izango garela pentsatzea, eta ondorioz lortzea, edo behar duenari keinu bat egin ahal izango diogula sinistea. Desio txikia dirudi, ezta?



Ainara  
Sedano

Mila esker desioagatik, Noe! Opari polita ekarri dit Olentzerok zure etxean! Egia esan, aplikatuz gero, emango litzuzkeen fruituen tamainarako desioa ez zait hain handia iruditzen! Azken finean, desioa martxan jartzea gure esku dago eta norberak jakin-

go du zenbateko ahalegina suposatzen dion planteamendua aldatzeak. Ni guztiz ados nago zuk idatzitakoarekin, eta duela gutxi irakurri nuen Internetez jasotzen (eta askotan zuzenean ezabatzen) ditugun artxibo batean, goizean esnatzean bi aukera ditugula: eguna umore onez edo, aldiz, bekozko ilunarekin hastea. Eta aurreko batean idatzi nuen bezala, bizitza jarrera kontu bat dela uste dut; norberak ematen diola askotan bere bizitzari kolorea, eta argi daukat bizitzak berak askotan ez dituela gauzak (onak eta txarrak) modu berean banatzen. Suerte horri begiratzeko guk jartzen diogun lenteak definitzen du garen persona modua. Hala ere, laguntzen du jakiteak norbaitekin konpartitzen den pena, penaerdi bihurtzen dela eta konpartitzen den poza, aldiz, poz bikoitz.

**“Goizean esnatzean bi aukera ditugu: eguna umore onez, edo bekozko ilunarekin hastea”**

Urte berriarekin opa diezaiegun, Noe, irakurle eta irakurle ez direnei ere, gaixo daudenak sinetsi dezatela, guk sinesten dugun bezala, (apaiza dirudit) sendatuko direla, penatzen dituzten buruhausteak arintzeko bila eta topa dezatela pisua arinduko dieten konponbide bat eta, goizean esnatzean, aukera dezagun denok egun on bat izatea, gauza txarrak etorriko dira aukeratu gabe-eta! Urte berri on!

II. URTEURRENA

**IÑAKI ARRIETA ZUBIA**

2010eko urtarrilaren 14an hil zen.

Haren oroimenez II. urteurrenako meza izango da, zapatuan, urtarrilak 14, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



# VICENTE GUINEA

ARGAZKILARIA

“Pagoekin  
maiteminduta  
bizi naiz”

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela diote askok, eta Vicente Guinearen ustez, milioi bat hitzek ere ez dute deskribatzen irudi batek jasotzen duena. Armagintza munduan dauka ofizioa, baina argazki kameraren atzean, afizioa. Pago artean barneratu, eta denbora luzez galtzen da bertan, argitasunarekin jolastuz, animalien forma bixiak bilatzeko. *Animarbolak* izena jarri dio Guineak arte mota honi, animaliak eta arbolak uztartzen dituelako.

Nola barneratu zinen argazkigintza munduan?

Orain dela 30 urte inguru hasi nintzen argazkigintzan. Nire koinatua mundu horretan zebilen aspalditik, eta laborategi txiki batean errebelatzen zituen argazkiak. Hura ikusi nuenean, txundituta geratu nintzen, eta poliki-poliki neu ere horretan hasi nintzen. Koinatuak zeuzkan likidoak erabiliz, irudia kamera-tik paperera eramatearen magia edo miraria

“*Animarbolak* deitu diot bildumari, animaliak eta arbolak uztartzen dituelako”

deskubritu nuen. Eta ordutik, argazkiak ateratzen ibiltzen naiz han eta hemen.

Nola ikasi zenuen argazkilaritzaren teknika?

Liburuak irakurtzen ikasi dut asko, baina ikastaroren bat ere egin nuen hasieran. Ongarri argazki taldean ere egon nintzen urte batzuetan, eta talde hartako kide bati asko zor diot, Jose Maria Sarasuari, alegia. Argazki rally bat antolatu zuen Ikastolako jai baten inguruan, eta irabazi egin nuen. Izugarri poz-

tu nintzen, eta aurrera jarraitzeko pizgarria izan zen. Ongarriren lokal berria inauguratu genuen egunean, Karakate inguruan aterata neuzkan argazkiekin pelikula antzeko bat prestatu zuen Sarasuak musikarekin, eta diapositibekin eman zuen proiektzioa. Oso polita geratu zen.

### **Eta nola hasi zinen zuhaitzetan animaliak bi-latzen?**

Mendira joatea asko gustatzen zait, eta halako batean zuhaitzetan forma bitxi batzuk ikusi nituen. Argiak ematen die forma, eta argia aldatu ahala, irudiak aldatu egiten dira. Denbora luzez egoten naiz zuhaitzei begira, eta ordu desberdinetan joan izan naiz argazkiak ateratzera. Batzuetan ez dut ezer lortzen, edo nik ikusitakoa besteek ez dute ikusten, baina argazki batzuekin oso gustura geratu naiz. *Animarbolak* deitu diot bilduma horri, animaliak eta arbolak uztartzen dituelako. Emazteari bururatu zitzaion izena, eta gustatu zitzaidan.

### **Zein lekutan aurkitzen dituzu animarbolak?**

Pagadietan. Pagoekin maiteminduta bizi naiz. Gorbea inguruan, Artikutzan edota Karakate-Irukurutza aldean aurkitu izan ditut *animarbolak*. Oreina izan da lortu dudan onena, eta hori Madariaga-Otarre inguruan aurkitu nuen. Ez da erraza horrelakoak ikustea, eta azkenaldian ez dut forma berriak aurkitzen. Lehendik aterata neuzkanak bisitatzen ditut batzuetan, eta nola aldatu diren ikusten dut.

### **Eta animarbolez gain, zeri ateratzen dizkiozu erretratuak?**

Natura gustatzen zait, eta bereziki, paisajeei eta mendiei argazkiak ateratzen ibiltzen naiz. Frantziako Pirinotako mendirik garrantzi



tsuenak igota dauzkat, eta 2008an Kilimanjaron izan nintzen. Nire ametsa bete nuen, eta sekulako argazki politak atera nituen han.

### **Argazkigintza analogikoarekin hasi zinen eta orain digitalean jarduten duzu. Zein duzu nahiago?**

Digitala erosoagoa eta merkeagoa da. Argazki on bat ateratzeko, txar asko atera behar dira, eta paperean errebelatzea oso garestia da. Karrete baten hiru argazki on ateratzen banituen, pozik geratzen nintzen. Diapositibak ere aukera handia ematen du, eta garai batean lan asko egiten nuen diapositibekin, baina orain oso gustura nabil digitalekin.

### **Eta argazki lehiaketetan parte hartzen al duzu?**

Bai, aurkezten ditut lanak, baina ez dut suerte handirik eduki. Orain dela urte batzuk *Diario Vasco* egunkariak oporren ostean egiten duen argazki lehiaketa hartu nuen parte. Nire izenean bidali nuen une hartan neukan argazkirik onena, eta beste erretratu bat emaztearen izenean bidali nuen, badaezpada. Epaimahaiak emaztearena aukeratu zuen, eta gainera, urte hartan ez zela irabazlearekin dudarik egon esan ziguten! Argazki ona da, Zarautzen ateratakoa, baina nire izenean bidali nuena Mexikon ateratakoa zen, nire us-tez oso polita. Egunkarian ere ez zuten atera!

### **Zer eduki behar du argazki on batek?**

Argiekin eta itzalekin jolastea gustatzen zait niri, argiz-kontra ateratako erretratuak oso politak ateratzen dira. Zuri-beltzeko argazkiek ere badute zerbait berezia eta gustatzen zaizkit.

### **Gaur egun dauden marrazketa programekin argazkiak asko itxuraldatzen ditu jendeak. Non geratzen da argazkilariaren meritua?**

Niri ez zait gustatzen erretratuak itxuraldatzea, baina izan daiteke nik ez ditudalako programa horiek kontrolatzen. Nik ez ditut erretratuak konpontzen ordenagailuan, baina egia da argazkilari batzuk sekulako lanak lortzen dituztela marrazketa programa horiekin. Dena den, hori ez da argazkilariaren meritua.

### **Eta hemendik aurrera, zein da zure asmoa?**

Argazki bildumekin bideoak egin eta musika jartzea gustatzen zait orain. Gustuko abestiren bat jartzen diot, eta asko irabazten du lanak. Nueva Yorkera egin nuen bidaiko argazki-muntaia egiten ari naiz. Gainera, laster jubilatuko naiz, eta argazkiak ateratzeko denbora gehiago izango dut. Joaten naizen leku guztietan zuhaitzei begira ibiltzen naiz, eta edonon aurkitu ditzaket *animarbolak*.

**Ainhoa Andonegi**



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:





ELGOIBARKO UDALA



MENDIARRO UDALA



APTE, APTE 21



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Atez-AteZ

Gabonen aurreko Barrenean A.Z. delakoak idatzitako eskutitzari erantzun nahi diot. Erraza delako eskutitz panfletarioak idaztea, eta diskurtso politiko jakin bati men eginda, atez ateko zabor bilketaren alde lau gauza idaztea, baina dena ez da horren erraz sal-tzen.

Zer duzu esateko atez-ateko zabor bilke-tak sortu ditzakeen usainen inguruan? Edo intimitate urraketaren inguruan? Norberak bere kuboan bere zaborra botatzeak, ondorio batzuk izan ditzake. Nire albokoak ez dauka zertan jakin, zer botatzen dudan nik zaborre-tara. Zer esanik ez, etxean sortu daitezkeen arazoen inguruan. Lekurik ba al dugu etxean kubo guzti horiek pilatzeko? Nire ustetan sis-tema zikina da. Zikina, eta gaur egun duguna baino garestiago irtengo dena gainera. Birzi-klatzea ondo dago, eta horretarako, ditugun edukiontzia nahikoak dira.

O.M. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Jai egunetan komertzioak zabaltzeko legearen kontra agertu dira dendari txikiak.

## Zer iruditzen zaizu jai egunetan dendak zabaltzea?



**Lorea Iriondo**  
51 urte, erizain laguntzailea

Oso gaizki iruditzen zait; oso oso gaizki. Dendariak ere atsedena hartzeko eskubidea daukate, eta ezin dira jai egunetan ere lanean egon. Denbora soberan daukagu astelehenetik zapatura erosketak egiteko, eta erosleok badakigu noiz egin behar ditugun erosketak.



**Ruth Garate**  
45 urte, dendaria

Oso gaizki. Merkatalgune handiek baldintzatzen dute txikia, eta ezin gara handiei begira egon. Txiki guztiak batu eta gure bidea egin beharko genuke. Denda txikiak familia negozioak izaten dira normalean, eta gehienetan pertsona bakarrak lan egiten du. Ezin diogu horrelako egoera bati aurre egin.



**Arantza Huidobro**  
47 urte, garbitzailea

Nik ondo ikusten dut. Lanean dagoen jende askok ezin izaten ditu astean zehar erosketak egin, eta horientzako aukera ona da. Badakit jendea kontra dagoela, baina niri ondo iruditzen zait. Elgoibar bezalako herri batean agian ez da beharrik egongo, baina hiriburuetan, seguru baietz.



**Francisco Javier Beato**  
28 urte, ikaslea

Ez zait ondo iruditzen, denda txikiak ezin diotelako neurri horri erantzun. Lege horrekin merkatalgune handiek irabazten dute, eta herrietako dendari txikiak izango dira kaltetu handienak. Beti bezala, handiak txikia jango du oraingoan ere.

## ■ SEMAFOROA



**Txalo bero bat Elgojaitza taldeari:** "Aurten ere lan bikaina egin du Elgojaitza taldeak. Jaiotza Mekanikoa urtetik urtera ederragoa eta dotoreagoa da, eta eskertzekoa da taldeko guztiek egiten duten lana. Oso polita jarri dute aurten ere, eta aurrerantzean ere bide beretik jarraituko dutela espero dut. Horrelako ekintzek Elgoibarren izena han eta hemen zabaltzen laguntzen dute".



**Ikastolako Kontseilu Errektoreak txalo bat eman nahi die Gabon Zahar feriako txosnan parte hartu zuten guztiei:** "Txalo bero bat, Gabon Zahar egunean, Ikastolaren txosna antolatzen eta bertan lanean aritu zineten guraso guztiei; ez duzue lan makala egin! Bestalde, mila esker bertara joan zineten herritar eta kanpotarrei ere; giro polita sortu zenuten denon artean".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barrene@elgoibarkolzara.com](mailto:barrene@elgoibarkolzara.com) 943 744 112

# Egurgileek Karakate eta Irukurutzeta artean ‘kalte handiak’ eragin dituztela salatu du Morkaikok

Lanak gelditzeko agindu du Soraluzeko Udalak, sortutako kalteak neurtzeko

**K**arakate eta Irukurutzeta arteko basoetatik egurra ateratzen ibili diren egurgileek “kalte handiak” sortu dituztela salatu dute Morkaiko mendizale elkarteko kideek. Atxolinera bidean, milaka urte dituzten dolmen eta trikuharrietatik oso gertu, kamioiek gupil arrasto sakonak laga dituztela salatu dute, besteak beste. Horrelako ingurune “berezi eta delikatuak” babes neurri handiagoak beharko litzukeela uste dute.

Basoetatik egurra ateratzeko lanetan “guztiaren gainera interes ekonomikoak” gailendu direla salatu dute Morkaiko mendi taldeko kideek. Natur ondarearen aurkako “sarraski” gisa definitu dituzte kalteak eta hainbat argazkirekin hornitu dute salaketa, taldeak daukan webgunean.

## Arduradunen azalpenak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Morkaikori erantzun dionaren arabera, egur mozketak egiteko Foru Aldundiaren “baimen guztiak” zituen egur jabeak.

Soraluzeko Udaleko alkateak, Hiart



Arluziagak, hain justu, ez du guztiz bat egiten Foru Aldunditik zabalduko azalpenekin. Arluziagaren iritziz, argi dago egurgileak ez dituela Udalak bere egunean jarri zizkion baldintzak bete. “Egoeraren larritasuna kontutan hartuta lanak gelditzea agindu dugu eta ondorengo egunetan neurtuko ditugu sortutako kalteak zenbaterainokoak izan diren, eta baita, kalte-ordainak nork eta

noiz hartu beharko dituen bere gain”.

Morkaikoko kideek ondo jaso dituzte arduradunen azalpenak eta kalteak konpontzeko prestutasuna. Alabaina, kalteak konpontzea ondo dagoela uste duten arren, kalterik ez sortzea zuzenagoa dela diote. Galdera bat ere laga dute airean: “Guri horren berezia iruditzen zaigun ingurune hori, Karakate eta Irukurutzeta artekoa, zenbateraino dago legez babestua?”.

## Profesionaltasun ziurtagirien sistema berrian oinarritutako ikastaroak eskainiko dituzte IMHn

Enplegurako prestakuntzari dagokionean aldaketak landu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta aldaketa horiei erantzunez prestatu du aurten IMHk bere ikastaroen eskaintza. Horrek ez du esan nahi, orain arte enpresen beharrei erantzunez prestatutako berriazko ikastaroak bertan behera geratuko direnik, baina gainontzekoek, enpleguari begirakoek, zenbait aldaketa izango dituzte. Guztiak batuta, 113 ikastaro eskainiko ditu IMHk 2012ko lehen sei hilabeteetan.

### Dokumentu ofizialak

Orain artekoen aldean, aurrerantzean eskainiko diren enpleguari begirako ikastaroak egindakoan lortutako ziurtagiria, dokumentu ofizial bat izango da. Hau da, estatu osoan zehar balioko du eta ikasleak jasotako lanbide-prestakuntza hori egiaz-

tatzeko ballagarria izango da. Ikastaro horiek guztiak Lanbideak %100ean diruz lagundutakoak dira.

### Langabetuentzat bereziki

Gainontzeko ikastaroez gain, badira bi, bereziki langabetuei begira prestatutakoak. Sektore eolikoko mekanizazioko ikastaroa lehenengoa, eta ekipo elektromagnetikoen mantentze eta konponketa ikastaroa bigarrena.

Horiek bietan parte hartzeko ordea, baldintza zehatz batzuk bete beharra dago.

IMHren web orrian aurkitu daiteke beharrezko informazio guztia ([www.imh.es](http://www.imh.es)). Ikastaroen katalogo berria ez ezik, baita aipatutako azken bi ikastaroak egin ahal izateko bete beharrezko baldintzak ere.



# Zozketak

## Hamar bizikleta zozketatu ditu Danobatek



Euskararen Egunaren harira, Elgoibarko eskoletako umeen artean, Danobat Groupeko bazkideen seme-alaben artean eta Danobat dagoen gainontzeko herrietako eskoletako umeen artean hamar bizikleta zozketatu ditu Danobateko Euskara Batzordeak. Ikastolako Julen Zubizarretak eta Herri Eskolako Onintza Elizburuk jaso dute bizikleta bana, Elgoibarren.

## CD Elgoibarren oterra ikusgarriak

Egin da CD Elgoibar taldeak urtero eguberrietan antolatu ohi duen zozketa ere, eta atera dira bi oterra ikusgarrien zenbakiak. 13.897 da lehen zenbaki saritua (11.027 erreserba) eta bigarrena 20.255 (23.558 erreserba).

## Miskiren lehen saria Mendarora

Miskiren lehen saria Mendaron egokitu da, 0726 zenbakiarekin, eta Elgoibarren bigarren saria, 0033 zenbakiarekin. Gabonetako oterra da lehenengo saria, eta Debako Kresala hotelean zirkuitua bigarrena.

## Txankakuaren zozketa

Txankakua merkatari eta zerbitzu elkarteak ere egin du bere urteroko zozketa. Lehenengo bi saridunek bostehuna euro jasoko dituzte eta gainontzeko zortziek ehuna euro. Hona hemen zenbaki sarituak: 1. 92.078 (67.399), 2. 49.250 (50.197), 3. 03.011 (15.786), 4. 85.334 (25.546), 5. 64.980 (91.980), 6. 44.798 (02.141), 7. 57.669 (46.667), 8. 97.399 (30.552), 9. 65.250 (91.23), 10. 61.013 (49.683).

## Atxutxiamaikaren Oterra

Nieves Fernandezi tokatu zitzaion Atxutxiamaikak abenduaren 24an zozketatutako baserriko produktuen oterra.

## Igor Martinezek Ezker Abertzalearen mariskada



Igor Martinezek irabazi du Elgoibarko Ezker Abertzaleak zozketatutako mariskada.

## Munichera bidaia



Txarriduna Paulanerrak zozketatutako Municherako bidaia Jose Armendiak irabazi du.

## Iñaki Insausti Zubiaurre Jubilatueneko lehendakari ohia hil zen

Joan den zapatuan, urtarrilaren 7an hil zen Iñaki Insausti. Jaiotzez Tolosarra izan arren Elgoibarren egin zuen bizitza, eta ezaguna izan zen herritarren artean. Jubilatuen Egoitzan makina bat lan egindakoa, 17 urtean izan zen Jubilatueneko lehendakaria.



## Debegesak industria arloko enpresei lagunduko die 2012an

Debegesako Berrikuntza eta Enpresa sailak, laguntza pertsonalizatua eta integrala eskainiko die industria-enpresei, euren lehiakortasuna hobetzeko. Era berean, enpresa txiki eta ertainei, aholkularitza zerbitzua ere eskainiko die Debegesak. Hori guztia, 'Bai industriari!' ekimenaren baitan egingo du Debabarrenako garapen ekonomikorako elkarteak.

## Berrerabiltzeko poltsa berdeak Merkatu Plazan

Miski elkarteko Gemma Agirregomezkortak, euro erdiren truke berrerabiltzeko poltsa berdeak banatzen jarraitzen du, baina dagoeneko Plaza Merkatuan egokitu zaion postuan dihardu horretan.



**BASERRIZ BASERRI, KANTUAN ETA ESKEAN**

# **ELGOIBARKO IZARRAREN SANTA AGEDA KORUETAN PARTE HARTU NAHI?**

**Otsailaren 4an (zapatua) izango da baserritarrekin daukagun zita,  
Santa Ageda bezperan.**

## **ZEIN DA PLANA?**

- *Goizeko 10:00etan elkartuko gara Plaza Handian.*
- *Bi taldetan banatu ondoren, Elgoibarko baserri auzoetara abiatuko gara kopla kantari.*
- *14:30ak aldera atsedean txiki bat hartuko dugu bazkaltzeko.*
- *Arratsaldean ere kantuan eta eskean segituko dugu, gaueko 21:30ak aldera arte.*
- *Egunari amaiera emateko, San Migeleko soziedadera joango gara afaltzera eta indarrak berreskuratzen.*

**Parte hartu nahi duzuenok  
URTARRILAREN 28a**

**baino lehen eman behar duzue izena.**

**943 74 16 26 (Imanol)**

**[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)**



**Animatu, denontzako tokia dago-eta!**

Abenduan...

**JAIOTAKOAK**



**Oihan Idueta Ormaetxea**  
Abenduak 16  
Ion eta Saioa



**Oier Izagirre Rodriguez**  
Abenduak 21  
Xabier eta Leire



**Maren Jainaga Gomez**  
Abenduak 24  
Iker eta Sara



**Naia Limia Blanco**  
Abenduak 25  
Daniel eta Saioa

**Mario David Curt**  
Abenduak 8  
Mariana

**Sare Eugi-Elkoro Toledano**  
Abenduak 9  
Joseba eta Nuria

**Faiza Housni El Atmani**  
Abenduak 10  
Lahcen eta Meryan

**Alain Fernandez Pereira**  
Abenduak 26  
Diego eta Oihana

**Alba Etxeberria Rodriguez**  
Abenduak 29  
Paulino eta Rebeca

**Anas Boutrassayt**  
Abenduak 30  
Rida eta Nadia

**Nakor Panizo Quintana**  
Abenduak 31  
Iker eta Julia

**HILDAKOAK**

Josefa Juaristi Arostegi • 98 urte • Abenduak 1  
 Amelia Cid Castro • 64 urte • Abenduak 4  
 Lorea Alberdi Txurruka • 59 urte • Abenduak 15  
 Santiago Lertxundi Sorazu • 95 urte • Abenduak 15  
 Juan Jose Perez Cortes • 89 urte • Abenduak 18  
 Victor Zubiaurre Lodoso • 57 urte • Abenduak 20  
 Rafael Arrizabalaga Berabide • 77 urte • Abenduak 23  
 Eugenio Mediavilla Riestra • 62 urte • Abenduak 29  
 Maribel Arriola Zubiaurre • 76 urte • Abenduak 29

**ETXEBERRIA**

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**



**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**  
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
 (Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira  
 943 744 112 telefonora edo bidalite-postaz [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.  
 Argazkia jartzeagatik 3 € ordaindu beharko dituzte Elgoibarko Izarrako bazkideek, eta gainerakoek, 4 €.



# Opariz beteta iritsi ziren errege magoak

Oparien zakua ondo beteta iritsi ziren errege magoak Elgoibarrera eta Mendarora. Umeen eskutitzak jaso zituzten hilaren 5ean, opariak banatzeko. Umeen ilusioak eta eskariak aintzat hartzeaz gain, San Lazaro egoitzako bizilagunei ere egin zieten bisita kabalgata egunean. Euria egin bazuen ere, giro ezinhobean burutu zuten aurtengo kabalgata. Datorren urtera arte oroimenean gordetzeko hainbat irudi dituzue jarraian. **Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)**





## Erretratu zaharra



1977

Aste honetako erretratu zaharra Maria Pilar Arrizabalagak ekarri du BARRENERA. Armueta harategiko atzeko lokalean aterata dago erretratua, 1977an, zorion ospakizun batean. Gogora ditzagun gaztetxo horien izenak:

**Ezkerretik eskumara:** Carolina 'frantsesa', Igor Palomino, Maite Maiora, Mirari Unamuno, Agurtzane Unamuno, Idoia Arrizabalaga (†), Jon Iturain, Mikel Mas, Maria Arrizabalaga, Maier Maiora, Iñaki Iturain, Maria Angeles Zubia, Kristina Alvarez, Maria Pilar Arrizabalaga, Idoia Arakistain, Joseba Alvarez eta Bingen Sasiain.



ESKERTZA

## M<sup>a</sup> ROSARIO ARRIAGA OLANO

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.*

*2011ko urtarrilaren 3an hil zen, 71 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





## Aurrerantzean gauero botika bat zabalik egongo da Elgoibarren

Eguneko guardiak Mendaroko, Soraluzeko eta Elgoibarko botiken artean banatuko dituzte

**Urte berriak aldaketa ekarri die eskualdeko botikei, eta aldaketak ez du inor bere horretan laga. Mutriku, Deba, Mendaro, Soraluze eta Elgoibarko botiken gaueko guardiak bateratu eta guardia horiek antolatzeko modu berria jarri baitzen martxan urtarrilaren 1ean. Aurrerantzean, egunero botika bat zabalik egongo da gauetz, Elgoibarren, aipatutako herri horietako urteko gaueko guardia guztiak, Elgoibarko botiken artean banatu beharko dituzte-eta. Herrian dauden lau botiketako batek egunero, argi berdea piztuta izango du gauetz ere.**

**E**usko Jaurlaritzako Osasun Sailak hartu du erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoan beste eskualde batzuetan ere egin den bezala. Eta erabakiari jarraituz, ez dira gaueko guardiak aldatuko diren bakarrak. Botiken jarduna hiru zatitan banatu beharra dago aurrerantzeko guardiak ulertzeko. Botiken lan ordutegia (9:00-13:00 eta 16:00-20:00), eguneko guardia orduak izango direnak (13:00-16:00 eta 20:00-22:00) eta gaueko guardia orduak azkenik (22:00-9:00). Eguneko guardia orduak, gure inguruan, Mendaro, Soraluze eta Elgoibarren artean banatuko dira eta gauekoak ordea, Deba eta Mutriku ere kontuan hartuta, soilik Elgoibarren egingo dira.

Banaketa horrek, erraztasunak ez ezik, nahasmenak ere sortu ditzake. Izan ere, ger-

ta daiteke zapatu batean zehar, hiru botika desberdini tokatzea guardia. Adibidez, imajinatu dezagun zapatu bat: Mendaron edo Soraluzen tokatuz gero eguneko zerbitzua, Elgoibarren ere zabalduko da bat goizean

zehar, 14:00ak arte, laguntza moduan. Horrekin batera, ezin dugu ahaztu gauetz bat zabalduko dela Elgoibarren. Egun batean zehar beraz, hiru botika desberdin zabaldu beharko dira.

## Urtean guztira 92 guardia egin beharko ditu Elgoibarko botika bakoitzak

### Herritarra pozik, botikariak ez horrenbeste

Edozeinek esango lukeen moduan, Elgoibarko herritarrak irabazi egin dute azken aldaketekin, gauero herrian botika zabalik izatea ez da eta nolana hiko. Alabaina, botikariak ez daude horren pozik. Gauzak berandu eta gaizki egin direlakoan daude, eta lehen zegozkien gaueko guardia guztiez gain, beste 38 gehiago egin beharrekin ez daude ados. Guardiak gogorak dira botikarientzat, eta hori gutxi balitz, herritar asko errezetarik gabe joaten direla ere azaldu dute botikariak. Azaroan izan zuten botikariek aldaketaren berri eta ez dute erabaki horretan parte hartzeko aukerarik izan.

### Gaueko medikurik ez dagoen lekuan, gaueko guardia?

Gaueko 00:00etatik aurrera ez dago larrialdietarako medikurik Elgoibarko ambulatorioan joan den ekainaren 19tik. Eta hori horrela, gaueko guardiak Elgoibarren egiteak, zentzu askorik ez duela uste dute zenbait botikariek. Hain zuzen ere, eskualdeko gardien bateratzea egin den gainontzeko leku gehienetan, larrialdietako medikua dagoen herrian egiten baitira gaueko guardiak.



## Ikastolaren 50. urteurrenari eskainita egongo da San Anton jaietako zigilu erakusketa

Asteburuan hasiko dira San Anton jaiak eta martitzenean amaituko dira

**A**ltzolarren Dorretxea filatelia elkarteak Ikastolaren 50. urteurrenari eskainiko dio aurtengo zigilu erakusketa. Correos y Telecomunicacionek zigilu marka berezi bat prestatu du, eta interesatuek bihar erabili ahal izango dute, 10:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean jarriko duten behin behineko posta bulegoan. Era berean, Ikastolaren omenezko zigilu berezi bat argitaratuko dute, eta aurtengo erakusketaren lekuko den gutunazala inprimituko dute.

Aurtengo zigilu erakusketa bihar inauguratuko dute Kultur Etxean, 12:30ean, eta hilaren 22ra arte egongo da ikusgai. Inaugurazio ekitaldiaren ostean, anaiarteko bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

### San Anton jaiak, martitzenera arte

Bihar hasiko dira San Anton jaiak zigilu erakusketarekin, eta martitzenean



amaituko dira, San Anton Egunean, hain zuzen ere. Urtero bezala, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elgoibarko patriaren omenez, eta musika jarduerak izango dira nagusi. Domekan, Eibarko Sostoa Abesbatzak kontzertua eskainiko du He-

rriko Antzokian, eta martitzenean Emudafek antolatutako San Anton kontzertua eskainiko dute. Horrez gain, meza nagusia, umeentzako parkea eta erraldoi eta buruhandiak izango dira. Egitarau osoa agendan ikusi daiteke.

## Baserriz baserri santa eskean irteteko deia egin du Elgoibarko Izarrak



Azken urteetako ohiturari jarraituz, otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera egunean irtengo dira Elgoibarko Izarrako kideak baserriak koplazera. Goizeko 10:00etan elkartuko dira Plaza Handian, eta bi taldetan banatuta, Elgoibarko baserri auzoetara abiatuko dira koplakantari. 14:30ak aldera atsedean txiki bat hartuko dute bazkaltzeko, eta arratsaldean ere kantuan eta eskean jarraituko dute, gaueko 21:30ak aldera arte. Egunari amaiera emateko, San Migeleko soziedadera joango dira afaltzera,

Elgoibarko Izarraren koruetan parte hartu nahi dutenek, urtarrilaren 28rako eman beharko dute izena, 943 74 16 26 (Imanol) telefonora deituta edo [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com) e-postara idatzita.

### Bioenergetika tailerra antolatu du Haizeak

Haizea emakume taldeak Bioenergetika tailerra antolatu du. Bi lengoia batzen dituen ikuspegi terapeutikoa da bioenergetika. Ahozko hizkuntza eta gorputz hizkuntza batzen ditu, gizakiaren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Hiru saio eskainiko dituzte, eta lehenengoa urtarrilaren 28an izango da, 10:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean. Hurrengo bi saioak otsailean eta martxoan izango dira. Bestalde, Emakunderekin elkarlanean, eneagrama ikastaroa hasi dute aste honetan, bakoitzak barnean daraman neskatilarekin konektatzeko ikastaroa, alegia. Eguaztenetan izango dira saioak, 17:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko baldintza bakarra Haizeako bazkide izatea da.



# Elgoibarko Udalak zine proiektagailu digitala jarri du Herriko Antzokian

Zineko sarrerak 0,5 euro garestitu dituzte 2012an

**Z**ine-industriak azken urteotan izan duen bilakaeraren ondorioz, proiektagailu digitalen bidez ematen hasi dira filmak, eta dagoeneko pelikula oso gutxi ematen dira 35mm-ko formatuan. Aurreikuspenaren arabera, 2013 urtetik aurrera ia ez da 35 mmko pelikularik emango. Ondorioz, Elgoibarko Udalak proiektagailu digital berria erosi du Herriko Antzokirako. Krisi egoera dela eta, proiektagailu berria erosteko erabakia hartzea oso zaila izan dela azaldu dute Udaleko arduradunek, "oso garestiak" direlako. Eusko Jaurlaritzak zine aretoetan proiektagailu digitaleko sistemak jartzeko diru-laguntzak eman ditu, eta Elgoibarko Udalak 34.225 euroko diru-laguntza eskuratu du, proiektagailuari dagokion kostuaren %50 ordaindu ahal izateko. Elgoibarko Udalak azken urteetan zinearen alde egin duen apustua "oso garrantzitsua" izan dela nabarmendu dute Kultura Saileko arduradunek, eta Herriko Antzokiko zine emanaldiak digitalizatzea apustu horren baitan ulertu behar dela gaineratu dute.

## Sarrerak 0,5 euro garestiago

Zineko sarreraren prezioa 4,50 eurokoa izan da 2005 urtetik



2011ra bitartean, baina 2012ko urtariletik aurrera 5 eurokoa izango da (Gazte Txartelarekin, 4 euro). Haurrentzako saioetarako sarrerera, berriz, 2,50 eurotik 3 eurora igoko da. Arduradunen iritziz, "pozik egon beharrean gaude, kalitatezko zinea daukagulako". Era berean, Kultura Bonua erabiliz zine sarrerak merkeago eskuratu daitezkeela gogoratu dute.

## Saltsa dantza maratoia antolatu dute biharko

Saltsa dantza maratoia egingo dute bihar, Olaiazaga kiroldegian. 11:00etatik 13:00etara izango da saioa, doan. Bestalde, saltsa ikastaroa martxan dagoela gogorarazi dute antolatzaileek. Oinarrizko mailako eskolak martitzen eta eguenetan ematen dituzte, 15:00etatik 16:00etara; eta maila ertaineko klaseak, berriz, astelehen eta eguaztenetan, 20:30etik 21:30era. Interesatuak Olaiazaga kiroldegian eskuratu dezakete informazio gehiago.

## Mendiko argazki eta bideo onenak saritu ditu Morkaikok



Eider Iriondok Txipeta mendiko gailurretik Hiru Erregeen Mahaiari ateratako argazkiak irabazi du, Morkaikok antolatutako lehiaketara. Erakusketara hurbildu ziren ikusleentzat bestalde, Aitor Romerak aurkeztutako argazkia izan da onena eta bideoen alorrean, berriz, Arkaitz Iruretak aurkeztutako lana saritu dute. Ogoñoeko lurmuturrean, Elantxobe eta Ibarrangelu arteko harkaitzean eginiko eskalada saio bat jasotzen du Iruretaren bideoak.

Mendiarekin zerikusia duten 64 argazki aurkeztu dira lehiaketara eta Kultur Etxeko sotoan egon dira guztiak ikusgai. Argazki guztiak ikusteko aukera duzue [www.morkaiko.net](http://www.morkaiko.net) webgunean.

## Leonard Komon iazko Mugertza krosetako irabazlea aurten ere Mintxetan izango da

Udalak eta Mintxeta atletismo taldeak lau urtez luzatu dute lankidetzaren hitzarmena

Leonard Komon korrikalari kenyarrak irabazi zuen iazko Mugertza krosa, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurten ere Mintxetan izango da. Komonek Elgoibarren parte hartzen duen bosgarren aldia izango da, eta laugarren txapela irabazten saiatuko da. 2008an egin zuen debuta kenyarrak Mugertza Krosean, eta handik gutxira, munduko kros txapelketako txapelburua izan zen. Aurtengo denboraldian ere lan ona egiten dihardu, eta dagoeneko, Laudioko lasterketa irabazi du. Urtarrilaren 22an jokatu da aurtengo krosa.

### Beste lau urterako hitzarmena

Orain dela lau urte egin zuten moduan, beste lau urterako hitzarmena adostu dute Mintxeta Atletismo Taldeak eta Elgoibarko Udalak, Mugertza krosa elkarlanean antolatzen jarraitzeko. Datozen lau urteetan 88.000 euro, (22.000 euro urteko) emango dizkio Udalak Mintxeta Atletismo Taldeari, Juan Mugertza Nazioarteko krosa antolatzen jarraitu ahal izateko. Aurreko hitzarmenarekin alderatuta, urtean 3.000 euro gutxiago jasoko ditu atletismo klubak.

Bestalde, Patronatuak jakitera eman duenez, Espainiako Federazioak pista homologatu bat izateko jartzen dituen baldintzak betetzen ditu Mintxetako atletismo pista. Horrela bada, aurrerantzean Mintxetan egingo diren probetan lortzen diren marka eta errekorrek Espainiako Federazioaren oniritzia jasoko dute, alegia, legezkoak izango dira.



Arg. Jairo Berbel

## Urdaiazpiko bat zozketatuko du Sanlok kamiseta eta bufanda janzten dituzten ikusleen artean



Sanloko senior taldeek partida garrantzitsuak jokatu dituzte bihar Olaizaga kiroldegian, eta klubeko arduradunek herritarrei dei egin diete animuak ematera

joan daitezten. Eta giroa bereziki berotu nahi dutenez, bufanda eta kamiseta zurigorria jantzita joaten diren ikusleen artean urdaiazpiko bat zozketatuko dute. Nesken partida 18:00etan hasiko da, eta, mutilena, 19:30ean.

Gabonetan, bestalde, Sanloko hainbat jokalarik eta entrenatzailek (ondoko argazkian) Espainiako txapelketan hartu dute parte Euskal Selekzioarekin, eta emaitza "onak" lortu dituztela jakinarazi du Klubak. Ainhitze Etxeberria hirugarren lekuan sailkatu da jubenilekin, eta Leire Arizmendik eta Nora Kortaberriak zazpigarren egin dute kadeekin. Azkenik, Alaitz Egaña, Nerea Solozabal eta Nerea Bastida hirugarren geratu dira infantilekin.

### Bi elgoibartar, San Anton pilota txapelketan

Joan zen astean hasi zen San Anton pilota txapelketa, eta gaur jokatuko dituzte bigarren finalerdiak, Ikastolako frontoian. Partida horietan, gainera, bi pilotari elgoibartarrek hartuko dute parte: Lizarralde, promesetan; eta, Arribilagak, nagusietan. 22:00etan hasiko dira partidak. Txapelketako finala urtarrilaren 20an jokatuko dute.

### Spinning saioak, zapatu goizetan

Kirol Patronatuak spinning saio bereziak antolatu nahi ditu urtarileko zapatu goizetarako. Ordubeteko saioak izango lirarteke, 10:30etik 11:30era. Interesatuak Mintxetako edo kiroldegiko harreraren eskuratu dezakete informazio gehiago.

# Iñigo Larizek bigarren egin du mendi eskiko Euskal Herriko krono-igoeran

Hiru elgoibartarrek hartu zuten parte proban

**A**rteteko eski pistetan jokatu zen Euskal Herriko krono-igoera txapelketa joan zen urtarrilaren 8an, Bandres memorialarekin bat eginenez, eta Iñigo Larizek bigarren postua eskuratu zuen euskaldunen artean. Izotza zegoela eta, azken orduan ibilbidea aldatu zuten antolatzaileek lasterkarien segurtasuna bermatzeko, eta sei kilometro inguruko ibilbidean, 600mko desnibela gainditu behar izan zuten. Larizek ezin izan zuen iazko garaipena errepikatu, baina oso maila onean dagoela erakutsi zuen eskia-tzaile elgoibartarrak.

Beste bi elgoibartarrei dagokienean, Eñaut Izagirre ere ez zen atzean geratu, eta senior kategoriako lehenengo urteetako promesen txapela lortu zuen. Arkaitz Iruretak, bestalde, Euskal Herriko kopako lehen hamarren artean amaitu zuen proba. Aipatu, baita ere, abenduaren 28an, Edurne Pasaban mendizaleak sustatutako *Era Innocentada* proban parte hartu zuela Iruretak Baqueira Beret estazioan, eta mutilen kategorian hirugarren egin zuela.



## Partida garrantzitsua jokatuko du bihar Concepto Egile taldeak, sailkapeneko bigarrenaren kontra.

Areto futboleko Concepto Egile taldeak partida garrantzitsua jokatuko du bihar Olaizaga kiroldegian, sailkapen nagusiko bigarrenaren kontra. Elgoibartarrak bedertzigarren lekuan daude lau puntu gutxiagorekin, eta bihar irabaziz gero, aurrerapauso handia emango lukete. Hori dela eta, taldeko arduradunek herritarrei dei egin diete, animuak ematera joan daitezten. 16:00etan hasiko da partida. Aurretik, King Kong jubenil taldea omenduko dute, Azpeitiko jubenil txapelketa irabazi duelako.

### Goi mailako areto futbola

San Anton jaien barruan, bestalde, goi mailako areto futbolaz gozatzeko aukera izango da urtarrilaren 25ean. Concepto Egile taldeak lagunarteko partida jokatuko du lehenengo mailako Rios Renovables - Riberas Navarra taldearen kontra. Gorengo mailako talde batek Debabarrenean jokatzen duen estreinako aldia izango da. Partida 20:00etan hasiko da.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Zarautz 0 (3. maila)  
Elgoibar 2 – Anaitasuna 3 (Ohorezko erreg.)  
Ikasberri 2 – Elgoibar 4 (Ohorezko jub.)  
Urnieta 3 – Elgoibar 6 (Kad. A)  
Baskonia 3 – Elgoibar 0 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 10 – Urki 1 (Inf. Txiki)  
Urola 0 – Elgoibar 1 (Neskak)

### ESKU PILOTA

San Anton txapelketa  
Promesak  
Urretabizkaia – Perez 9  
Rezusta – Arrieta 22  
Nagusiak  
Atxotegi – Aldape 5  
Diez – Yoldi 22

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 14  
16:00 Concepto Egile – Atenea (2B maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14  
10:00 Elgoibar B – Zumaia (Kad B)  
12:00 Elgoibar – Miren Bihotza (Ohorezko inf.)  
16:30 Elgoibar – Bergara (Ohorezko jub.)  
Domeka, 15  
10:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Aleb.)  
12:00 Elgoibar – Vasconia (Kad. A)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 14  
11:15 Txarriduna Elg. – Zarautz (Inf. mut.)  
12:30 Bankoa Elg. – Eibar C (Inf. mut.)  
18:00 Tecnifuelle Elg. – Kukullaga (Sen. nes.)  
19:30 Alcorta Elg. – Basauri (Sen. mut.)  
Domeka, 15  
9:30 Sanlo A – Sanlo B (Aleb. nes.)  
10:30 Grupo Eibar Elg. – Eibar (Kad. mut.)  
12:00 Astigarraga Elg. – Eibar (Kad. nes.)

### PILOTA

Barxakua, 13  
21:15 Lagunak – Bergara (Jub.)  
22:00 Etxaniz – Aizpuru / Lizarralde – Galarza (Pro.)  
22:45 Andreu-Landaburu / Arribillaga – Bolinaga (Nag.)  
Domeka, 15  
10:30 Lagunak – Beloki (Kad.)  
11:15 Lagunak – Tartaloetxe (Jub.)  
12:00 Lagunak – Mundarro (Pala)

**LANA**

**ESKAERA**

- Ingeles klase partikularrak ematen dira, etxez etxe. ☎ **677 898 633**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zainzeko prest. Orduka. ☎ **638 338 816**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 279 970**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen esperientzia handia daukat. ☎ **680 808 125**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zainzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz zehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten egingo nuke lan. ☎ **695 303 237**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten egingo nuke lan. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten egingo nuke lan. ☎ **636 581 194**

- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten egingo nuke lan. ☎ **686 578 228**
- Mutilla edozein lan egiteko prest. ☎ **664 029 948**
- Lana behar dut: Nagusiak zaintzen, garbiketetan, zerbitzari lanetan... Edozein lan hartuko nuke. ☎ **647 175 093**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626 914 904**
- Ingelesko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **669 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea lan bila. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**

- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194**


**GARAJEAK**

- Garaje itxia alokagai San Roke 10ean. Hilean 75 euro. ☎ **699 409 697**


**BESTELAKOAK**

- Erloju bat aurkitu dit. ☎ **943 742 168**
- Gazte Asanbladak sukaldarako altzariak behar ditu. ☎ **677 898 633**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira. **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



Bazkide izateko bigarren epea zabalik. Urtariletik uztaileara arteko kuota **30 euro**. Familia ugariak %30eko deskontua, eta, familia ez ugarien kasuan, bigarren seme-alabak %30eko deskontua.



Urtarrilaren 14an, larunbatean, animatu **Wii-arekin jolastera!** Eta, etorri San Anton eguneko ekintzez informatzera!"



**Makina Erremintaren Institutua**  
**Instituto de Máquina Herramienta**

**Sektore eolikoarentzat interesgarria!**  
**Mekanizazio ikastaroa**  
**Mekanizazioko Zikloetako titulodun langabetuentzat**

270 ordu, arratsaldez. Praktiak enpresetan.  
 Hasiera: urtarrilak 30 / Amaiera: martxoak 30  
**%100** subentzionatuta Sarbideak programari esker

**IMH, Elgoibar**  
 Izen emateak: **943744132** telefonoa **nora@imh.es** **www.imh.es**



• Zorionak, 18 urte bete dituzulako! Aupa gure *Grietzman!*



• Zorionak, **Jon**, zapatuan 6 urte egin zenituelako. Muxu pila bat etxekoan eta bereziki, Keparen partez.



• Zorionak, **Telmo**, hilaren 11n 2 urte egin dituzulako. Muxu potolo asko, bereziki, Klararen eta lanen partez.



• Zorionak, **Axular!** Segi orain arte bezalako alaia eta xalaua izaten! Familiako denon partez.



• Zorionak, **Eider**, zure urtebetetzean. Muxu asko familiakoan eta bereziki, Onintzaren partez.



• Zorionak, **Laura**, astelehenean 11 urte egin zenituelako. Muxu asko familiakoan eta bereziki, Josuren partez.



• Zorionak, **Ibon!** Hilaren 16an, 3 urte! Ondo ospatu zure eguna! Muxu handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Iban**, urtarilaren 6an 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat gurasoen eta, bereziki, anaia Jonen partez.



• Zorionak, **Malen**, zurre 3. urtebetetzean. Patxo handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Asier**, gaur 5 urte egin dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, anaia Julen eta lkerren partez. Muxu bat.



• Zorionak, **txapeldun!** Etxeko denon partez, munduko muxurik handiena!



• Zorionak, **aittita Paulo, Iker eta Nere**, urtarilaren 15ean, 17an eta 30ean, 78, 8 eta urte bat beteko dituzuleako. Muxu handi bana, etxekoan partez.




• Zorionak, **Ekain!** 3 urte potolol Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, etxeko bi printzesei, familiako gutzition partez. Bereziki, Ireneri, hilaren 2an 4 urte egin zituelako. Muxuak.



• Zorionak, **Elene eta Ibon**, zuen bigarren urtebetetzean. Muxuak, familiako gutzietan partez.



• Zorionak, **Laren eta Aiala!** Zapatuan ospatuko dituzue elkarrekin zuen urtebetetze eguna! Askok maite zaituztegu! Segi horrela!



• Zorionak, **Elene**, atzo 4 urteko egin zenituelako. Muxu asko, familiakoan partez.

## OHARRA

### AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarrekog agurra: 4€.  
- Argazki bikoitza: 6€.  
- Hirukoitza: 8€.  
- Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekog agurra: 3 €.  
- Argazki bikoitza: 5€.  
- Hirukoitza: 7€.  
- Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

# Idama



Abenduko irabazlea:

**ARRATE ABASOLO**

Urtarrileko saria:

**SHELLAC MANIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

## 13 barixakua

### Musika

22:30 **Kontzertua**

Sinuosek antolatuta, *Sad Town* Losers taldeak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 14 zapatua

### Dantza

11:00 **Saltsa maratoia**

Kiroldegian egingo dute, eta doan izango da.

## 17 martitzena

### Jaiotza

10:30 **Jaiotza mekanikoa**

Elgojaiotzak antolatutako jaiotza mekanikoa ikusteko azken eguna.

## 18 eguztina

### Kirola

12:30 **Juan Mugertza krosaren aurkezpena**

Udaletxean.

## 20 barixakua

### Antzerkia

20:30 **'Contra el viento del norte'**

Tantaka teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## SAN ANTON JAIAK

### 13 BARIXAKUA

22:00 **San Anton pilota txapelketa**

Finalerdiak, Ikastolako frontoian.

### 14 ZAPATUA

12:00 **Zigilu erakusketa**

Ikastolaren 50. urteurrenari eskainia. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

### 15 DOMEKA

12:30 **Kontzertua**

Eibarko Sostoa abesbatzaren kontzertua, Herriko Antzokian.

### 17 MARTITZENA

**San Anton eguna**

11:00 **Meza nagusia**

Parrokiako abesbatzak lagunduta.

11:30-1400 eta 16:30-19:30 **Haur parkea**

Plaza Handian. Euria egiten badu, Ikastolan.

12:30 **San Anton kontzertua**

Herriko Antzokian, Emudafek antolatuta.

17:00 **Erraldoi eta buruhandiak**

Zezenzikletekin eta dultzaineroekin, kalejira.

### 20 BARIXAKUA

22:00 **San Anton pilota txapelketa**

Finalak, Ikastolako frontoian.



### OKINDEGIAK

15 domeka **EIZAGIRRE**      17 martitzena **FOTERO**

### BOTIKA - GUARDIAK

#### Egunez

13:00-16:00 / 20:00-22:00

13 Yudego  
14 Zabaleta  
Goizez: Etxeberria

15 Zabaleta  
16 Fernandez

17 Ibañez  
18 Garitaonandia

19 Etxeberria

#### Gauetz

22:00-9:00

Yudego  
Etxeberria

Etxeberria  
Yudego

Etxeberria  
Garitaonandia

Etxeberria

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### ZINEA

#### «Margin call»

13, barixakua: 22:15  
14, zapatua: 19:00/22:15  
15, domeka: 19:00

#### «Happy feet»

15, domeka: 16:30

#### «Fuga de cerebros»

16, astelehena: 21:30  
17, martitzena: 19:00



#### «Margin call» Zuzendaria: J.C.

Chandor. **EEBB**, 2011. Aktoreak: Kevin Spacey, Paul Bettany, Jeremy Irons, Zachary Quinto, Penn Badgley, Demi Moore, Mary McDonnell iraupena: **109 minutu**.

Filmeko protagonista nagusiek inbertsio banku garrantzitsu batean egiten dute lan. Peter Sullivan izeneko inbertitzaile hasiberria ohartuko da gauza arraroak ari direla gertatzen lan egiten duen enpresa boteretsuan; gauzak ez dira jakinarazten dituzten zenbakiak bezain politak. Ia nahi gabe, Wall Street, eta ondorioz mundu osoa, finantza krisialdiaren hasieran egoten ahal dela jakinen du. Iluntze aldean gertatuko da hori, eta hurrengo egunean mundua esnatuko denean burbuilak eztanda egingen du.

# emugi!

elgoibarko  
mugikortasun  
iraunkorra



## EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzea

**GAUR EGUN 19 BAZKIDEK PARTEKATZEN DITUGU EMUGI K eskaintzen dizkigun baliabideak. EGIN ZAITEZ BAZKIDE, ETA ZURE BEHARREN ARABERA ERRESERBA EZAZU. ANIMA ZAITEZ!**



**M. AXUN LARRAÑAGA**  
MEKA Lanbide Eskolako Zuzendaria

*“Ekimen interesgarria, berritzailea eta etorkizun handikoa iruditu zitzaidan hasieratik Elgoibarko Udalak bultzaturiko EMUGI proiektua. Bazkide izatearekin, eta kotxe elektrikoak alokairuan erabiltzearekin, Meka Lanbide Eskolak aurrezteaz aparte, iraunkortasunari laguntzen diolakoan gaude.”*



**ALFREDO ETXEBERRIA**  
Elgoibarko Alkatea

*“Partekatzea, aurreztea eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea dira EMUGI proiektuak Udalari eskaintzen dizkion onuretako batzuk.”*



PREZIOA: 0,25 € 15 minutuko  
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 25 €



PREZIOA: 0,20 € 5 minutuko  
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50 €



\*San Bartolome 30\* Elgoibar.

Amaro Estructuras

- ➔ Plaza txikitan apartamentuak salgai aukera paregabea! Eraikitze lanetan!
- ➔ Apartamentuak salgai 160.000 eurotik hasita (26.600.000 peseta).
- ➔ Logela bateko edo biko apartamentuak.
- ➔ Etxea zurea izango da, alokairu baten pare ordaindu arren.



**Informazio eta salmenta obra bertan.**

**Tel.: 609 324 517**